

AHALDUNTZE BERTSO-ESKOLA
2018-2019 ikasturtea

Izena emateko epea 2018ko irailaren 3tik 21era

Bertsolaritzarentzat emakumeak plazan izateak duen garrantziaz jabeturik, eta emakumeen jendaurreratzean ematen diren ezaugarri orokorrak kontutan hartuta, bertsolari bezala aurrera egin nahi duten emakumeentzat lagungarri izateko sortu da Ahalduntze Bertso-Eskola.

Ahalduntze Bertso-eskola bat-bateko maila ezberdinak dituzten emakumeentzat dago zabalik, eta ikasturte osorako konpromisoa eskatuko du, bai asistentzian eta baita parte hartzean ere.

Ezaugarriak

- 📍 Maiztasuna: hilean behin, larunbata goizez (10:00etatik 14:00etara).
Ikasturtea 2018ko urrian hasi eta 2019ko ekainean bukatuko da.
- 📍 Lekua: Villabona, Bertsozale Elkartearen egoitza.
- 📍 Partaide kopurua: gutxienez 8, gehienez 16.

Oinarriak

1. **Konpromisoa:** Ikasturte osoan zehar klaseetara etortzea eta dinamikan parte hartzea eskatuko zaie bertso-eskolan izena eman dutenei.
2. **Esperimentazioa** denez bertso-eskola honen oinarria, hori zaintzeko, egitasmoaren kanpo komunikaziorik ez da egingo (hedabideak, blog pertsonalak, facebook, twitter, eta abar).
3. **Aniztasuna:** Emakumeen arteko eta ikuspegien arteko aniztasuna eta errespetua oinarri izango da.

AHALDUNTZE BERTSO-ESKOLA 2018-2019	
2018 Urriak 20 Azaroak 17 Abenduak 22 2019 Urtarrilak 19 Otsailak 16 Martxoak 16 Apirilak 13 Maiatzak 18 Ekainak 15	<p>Gai-jartzaile lanetan: Ainhua Aranburu, Arkaitz Goikoetxea.</p> <p>Antolatzaile lanetan: Ixiar Eizagirre.</p>



**AHALDUNTZE BERTSO-ESKOLA
2018-2019 ikasturtea**

Izen ematea:

- Mezu bat bidaliz: umorez@bertsozale.eus
- Zure izen-abizenak, telefonoa eta emaila utzi.
- Epea: 2018ko irailaren 3tik 21era, biak barne.
- Taldea osatzeko izen emate ordena hartuko da kontutan.
- Taldearen osaketaren berri irailaren 28an emango da eta matrikula ordainduko da.
- Izena emateak bertso-eskolaren oinarriak onartzen direla adierazten du.

Matrikula:

- Zenbatekoa: 150 €
- Matrikula ordaintzeko epea: urriaren 5a.
- Ordainketarako banku zenbakiak:
 - o Euskadiko Kutxa: 3035 0060 43 0600042844
 - o Kutxabank: 2095 5005 99 1061466982
- Kontzeptuan, jarri mesedez: "Ahalduntze (+zure izen abizenak)".
- Matrikula ordaindutakoan ez da dirurik itzuliko.
- Matrikulatik kanpo gelditzen dira ikasturtean zehar sortu daitezkeen bestelako ekintza gehigarriak.

**Ahalduntze Bertso-eskolaren kostu nagusia Emakunderen diru-laguntzaren bidez osatu da.*